

GORGONIOREN ESTUASUNAK.

ZARZUELA-MOLDAERA

glossa bakarrentzat eta egintza beltza.

Marcelino Soroa Lasa-k

IKURIBATUA



TULISA.—Antigua Capital Real de Guipúzcoa.

KAN BARRUTIA:

Argitaerak eta Inprimak E. M. BARRA, Tulisakoan. I. 4. 2.

1924

GORGONIOREN ESTUASUNAK

ZARZUELA MOLDAERA
Gizon bakarrentzat eta egintza batian

Marcelino Soroa Lasa-k
IZKRIBATUA

PESETA BAT

TOLOSA.-Antigua Capital foral de Guipúzcoa.

SAN SEBASTIAN:
Imprenta de los Hijos de I. R. Baroja, Constitucion, 1 y 2.
1894

Egilliarena da.

Manuelita-ri

Aitacho
Marcelino-k

EGILLEAREN EUZKERAZKO

jostirudiak Donostiko Teatro Principal edo zarrean chalo askorekin aurkeztatubak.

Iriyarena.

Anton Caicu.

Gabon (Bigarren argitaratza).

¡¡Au ostatuba!!

Alcate berriya.

Urrutiko inchaurreak (Durango-ko Euskal-festetan urrezko medallekiñ saritua).

Gorgonioren estuasunak.

¡¡Lapurrak, Lapurrak!! (Argitaratzeko)

Barrenen arra. (Argitaratzeko)

Idurigilleak	Eginzalleak
Gorgonio	On Jose Artola
Marciano (Ien Martina)	“ Armando Larzabal
Joshé	“ Norberto Luzuriaga
Sebastian	“ Ignacio Iribarren

Jendia.

Gertaera iduritzen da Tolosan

1888ko Abenduaren 26an aurkeztatu zan, Juan Guimon jaunaren musikarekiñ. Siñalatzalle edo apuntadoria, bestietan bezela, Toribio Alzaga jauna izanik.

EGITE BAKARRA

Iruditegiak aurkestatzen du ostatu bateko jan gela bat.

LENBIZIKO IRUDIA

I

Jendia bazkaltzetik bezela mayetik alchatzen da.
Marciano gauzak jasotzen.

MUSIKA

(Kantatzen dute nai dan doñuban, pianuarekiñ edo beste gisa, nai bada boza utzian, edo bestela esan litezke berso abek eta gero azalduko diranak, izketan banaka egiñik jolasa.)

GUZTIYAK	Bazkaldurikan bapo guazemak plazara, an egingo diagu gogotik algara.
BATZUBEK	Oraindikan mutillak tragocho bat bota.
BESTIAK	Bota, bota beste bat, oraindik dagota.
GUZTIYAK (<i>Eraten</i>)	Trago abekiñ zaigu barrena pizkortu, etzan gizon makala au zubena sortu. Sagarduentzat berriz ez gera makurrak, eranik ez ditezen ordoitu zintzurak.
BATZUBEK (<i>Barren aldera beida</i>)	Ariyo Martinacho
BESTIAK	Baguaz Martina.

GUZTIYAK

Bañan etzaigularik
Astuko propina. (*Dijoaz*)

BI-GARREN IRUDIA

II.

MUSIKA

Marciano (*Bakarrik.*)

Feri eguna da ta
guztiyak dute jai,
orreatik dabilta
kalietan alai.
Iji, aja kantari,
dantzak ere nun nai,
ni berriz echechuan
jende guztiyensa.

(*Izketan*) Eta Martinak esaten dubena: (*Esaten du, albada, emakumien boza antzian*) “¡Ez da gizonak bezelakorik! ¿Nunda nere gogua? An da nere zankua. Emakumiak berriz, eche chuluan sartu ta egon.” Ori esaten du Martinak, bañan badira batzubek, eta ez guchi ere, ibiltzen diranak firri-farra edozein aitzakiekin kalien erdian.

IRU-GARREN IRUDIA

III

Marciano ta Gorgonio

GORGONIO

(*Egintzallearen eskuiko gelatik ojuka*) Marcos.

MARCIANO

Asi da berriz ojuka gure enreamakilla.

GORG.

Mauricio, Mauricio. (*Deika*)

MARC.

Bai; ta Macario, ta Martiñ, ta Mamerto, ta... edozein izen. Neria ez beste guztiyak.

GORG.

Macario, Macario.

MARC.

Ez diyot bada erantzungo nere izenekiñ deitu arte.

GORG.

Mamertoóóóóó.

MARC.

Mariatu biar ditu baztar guztiyak, boltsa diruba galdu duben kontu orrekiñ.

GORG.

(*Aterarik; beti guardasol zar farragarizko batekiñ.*) Bañan zuk ¿ez aldezu aitzen?

MARC.

Enaizela ni Martin, ezta ere Marcos, Mauricio, Macario ta Mamerto, baizik Marciano ta Marciano.

GORG.

Bai; Marciano Berritzu.

MARC.

Ezta Berritzu ere; ni naiz Marciano Lecuona.

GORG.

Bai, bai; ez diruizu leku charrekua, ez.

MARC.

Ez orreatik. Artuko luke.

GORG.

¿Artu? Nik artuko nukena da galdu zaitan boltsa.

MARC. ¿Ez aldu arkitu?
 GORG. Ez Martin ez.
 MARC. Marciano.
 GORG. Bai; Mar... Mar... ori. Beti mar-mar berriketana ari zerata...
 Orra bada; jakin bear dezu, gaur goizian Zumarragatik atera
 naizela bei bat erosteko asmoetan ta...
 MARC. Bai, bai; aitu diyot len ere, Gogornio jauna.
 GORG. Aizazu, ez naiz ni Gogornio, ta bigornio, baizik Gorgonio.
 MARC. Bai, bai, badakit, Grogonio.
 GORG. Dale bola.
 MARC. ¿Bola?
 GORG. Bai Mamerto.
 MARC. Ez naizela Mamerto, baizik, Marciano.
 GORG. Marciano... bai. Mar... Mar... erderaz itsasoa. Itsasoa pasa ta
 Ameriketara joan bearko dezu zuk.
 MARC. Ez daukat Ameriketara juaan biarrik. Emen det nik biar
 detana.
 GORG. Ez det bada nik emen bear detana. (*Bear detana, esatendu
 indarrekin*)
 MARC. ¿Zer biar du bada?
 GORG. ¿Zer bear detan? Nere boltsa diruba.
 MARC. Bedorrena izanduba. Onezkero badu beste jabia.
 GORG. Bañan jabe ori ez da bide zuzeneko.
 MARC. Ori egiya da. Orduban bedorren boltsa ¿oker ibildu da?
 GORG. ¡Añ oker! Orra bada, Zumarragan trenian ni sartu...
 MARC. Ta boltsa atera. Izutu egingo zan burni bidean.
 GORG. Ta trenetik jeizteakuan...
 MARC. Beti kanta orrekiñ dago.
 GORG. Aizazu, ez dakat nik kantatzeko gogorik. Ta trenetik
 ateratzerakuan...
 MARC. Bai, bai, badakit.
 GORG. Arkitu nitzan boltsa gabe ta...
 MARC. Aitu diyot dozena bat dider. (*Dijua.*)

LAU-GARREN IRUDIA

IV.

Gorgonio (*Bakarrik.*)

(*Marciano-ren antzian*) Aitu diyot dozena bat bider. ¡Eta badijua! ¿Zer egingo det nik oraiñ? Kontu eman det telegrafos diruba bigaltzeko bereala ta... ¡Albalitz telegrafos bialdu! Bañan ez, ez; ez naiz orren asto lukainka. Orainchen jango nuke bada muthur bat... Ez, ez; ez det pakerik nere boltsachua topatu arte. Eta lukainkik ere ez. ¡Ainbeste urtian gordetako ontza urre sharrak! ¡¡Ai!!

MUSIKA

Biotza daukat purrukaturik
malkoak berriz begiyan,
San Antoniok lagun nazala
detan ishtillu gorriyan.
Choragarritzko dizdizariak
jartzen ninnuten gloriyan,
(*Negarrez*)
¡ji, iji! nik ¡ai! oyek gabe
¿zer egingo det feriyen?
Nola gordiak egondu diran
eche chuluan artian,
aurreneko gaur aterarikan
galdu dirade bidian.
Errape ona izana gatik
bei esnetzubak, aldian
nik erosteko sai dagona da
legortuko bitartian.

BOST-GARREN IRUDIA

V.

Gorgonio eta Sebastian

SEB. ¿Zer dezu Gorgonio jauna?
GORG. ¿Zer detan? ¿Zer izango det? Nubena ez izatia.
SEB. ¿Kantari ari gera, kantari?
GORG. ¿Kantari? ¿Ni kantari? Ez, Sebastian, ez.
SEB. Apuztu egingo nuben bada zerbait soñu aitu detala.
GORG. ¿Soñuba? Ametz egingo zenduben. Etzera noski oraindik
esnatu... ¡Soñuba! ¡Aituko nuke nik ere pozik ayen soñuba!
SEB. ¿Zeñena?
GORG. ¿Zeñena izango da? Nere ontzakurre gashuena. ¡lji, iji, iji!
Oroitzen naizen bakuitzian korapillu bat egiten zait biotzian,
eta ontzakurriak bañon aundiyagoko malkuak ishurtzen
ditut. ¡lji, iji! ¡Zer soñu ederra zuten!
SEB. ¿Beaz bai?
GORG. Esango nuke. Bañan... bañan... ¡ai!
SEB. ¿Miñ artu aldu?
GORG. ¿Miñ? Bai, miña daukat gorputz guztiyan. Orra bada; jakin
bear dezu gaur goizian Zumarragatik atera naizela ta...
SEB. Bai, bai, badakit ori. ¿Eta zergatik ez dit diruik artu nai?
GORG. Ez, ez; eta trenian sartzerakuan...
SEB. Aitu diyot berrogei aldiz ere. (*Dijua*)

SEI-GARREN IRUDIA

VI.

Gorgonio (*Bakarrik*)

(*Sebastianekiñ izketan ari balitz bezela.*) Nola jendia erruz zan, ikusi ditugu ishtillu gogorrak bulkaka ta alkarren gainka ito bearrian gure lekubetan etsan arte. Beso azpiyan neraman guardasola, ikusten dezun bezela, eta... ¡Eta joan da! (*Alde guztiyetara beidaturik*) ¡Ikusiko litzake! ¡Au jende desegokiya! Batek, (*Marciano-ren antzian*) “aitu diyot dozena bat bider.” Bestiak, (*Sebastianen antzian*) “aitu diyot berrogei aldiz ere.” Eta alde egiñ ta usten naute abua zabalik. ¿Iñork ez du nai nerekiñ itz egiñ? Nik itz egiñ bear det bada norbaitekiñ. Eta itz egingo det. Orra. (*Guardasola jartzendu silla baten gañian eta andik zintzilik ateratzen duben chaketa eta berriz onen gañian, chapela edo boina, bera ishiritan aurrian.*) Orra bada; jakiñ bear dezu gaur goizian Zumarragatik atera naizela nere guardasola beso azpiyan nubela, fardelchua esku batian, eta gazta guri bat bestian, bei bat Tolosako feriyen erosteko asmuetan, zergatik lengo beya antzu edo legor gelditu da ta ni beste baten bearrian. Ala bada, kontu aundiyarekiñ eta zapitartian bill-bill egiñ da nekazkiyen ontzachuak arturik ¡aiñ ederrak ziran! nere semiak baziran bezela maite nituben nere biotzeko kuthun ayek, eta lenbiziko echetik egiten zuten ateraldiyan ez igez egitiatik, korapilluz ondo, ondo loturik, sartu naiz esan dizutan bezela Zumarragako burni-bidean. ¡Onla da gustua itz egitia! Ja-rik ere ez du esaten eta ez du itz biderik gal-azitzen. Aitu ta abua josi. Datozela oraiñ ayek beren “aitudiyot dozena bat bider” eta “aitu diyot berrogei aldiz ere”rekiñ. Guazen bada aurrera. Ez, ez, ez mugitu. Esan nai det, guazela gure kontubarekiñ aurrera. Jendia elchua bezela zan. Bulka batzubek eta bulka bestiak ezta ainbeste labe-zomorro udaran sortu. Jarri giñan alkarren gainka itotzeko zoriyan ta, fiiiit ta fúúúú, bunbulun banbala, arkitu giñan Tolosan. Alchatzerakuan, fardeleko arraultzak etziran arraultzak, ayec ere trenak bezela aurreratu zuten eta sartagiyan jarri gabe gertatu zan tortilla. Gaztak ere ez guchiyago izatia gatik eta alperkeriyan egon gabe, zabalera aundi bat artu zuben eta zabaltasun eta metasunean iduri zuben familiko talo bat. Eta nere urre shar zoragarriak ¿zertan biurtu ote dira? Koloreik ere etzait gelditu; bañan gaizki esan det. Arraultzetik tortilla egiterakuan, urre koloria nere galtzetan gelditu da. Ara, ara. (*Erakutzirik*) Bai, bai farra egiñ zazu, ez da gauza guchiyagoko, far egiñ, far egiñ.

ZAZPI-GARREN IRUDIA

VII.

Gorgonio ta Marciano

MARC. ¡Ja, ja, ja, ja, ja! (*Farrez*) ¿Zer ari da bedorri?
 GORG. ¿Zer ari naizen? Ez naiz ni ariya eta auntza-ere.
 MARC. Badakigu dala Gorgonio jauna.
 GORG. Gogor... gogor... zu baizerala gogorra buruz, buru-gogorra.
 MARC. ¡Ja, ja! Ez dute guztiyak ori esango.
 GORG. ¿Ez e? Gizagajoa; (*Marciano-ren antzian*) ez dute guztiyak ori esango: ¿Zer maratilla da ori?
 MARC. Ez det maratillik.
 GORG. ¿Zer matraka?
 MARC. Ezta matrakik ere. Atabaleruak oju egiñ du bedorren diru galtzia.

GORG. ¿Bai? ¿Ta zer dakar zu?

MARC. ¿Nik? Bedorren diruik ez beñepiñ, zorigaiztuan.

GORG. Bañan ¿ez da agertu?

MARC. ¿Diruba? Garishti dago, eta oso eskutatuba, batez ere urria.

GORG. ¡Añ eskutatuba! Neri beñepiñ etzait azaltzen. Bañan ¿neretzat ez da oraindik etorri?

MARC. ¿Zer? ¿diruba? ¡Alajaña! ekartziak ere lana franko izaten du.

GORG. Utzi zazkitzu chanchak alde batera Matias.

MARC. Bedorrek utzi biarko ditu, bedorrek. Beti izen goitiyak jartzen...

GORG. Beitiyak jarriko dizkitzut bada.

MARC. ¿Beyarenak? Jarri bezayo erosten dubenari.

GORG. ¡Ai erosten detanari! Badakit Makario zerala.

MARC. Ez bada, Marciano ta Marciano. Bedorri Grogonio jauna bezela.

GORG. Orduban etzera zu Makario.

MARC. ¡Aituko litzake!

GORG. ¡Oi, oi! Aitu dezun bezela. Izango zera Macino edo Matraka. Bañan ¿orain zer egin bear det nik?

MARC. Chaketa jantzi.

GORG. Ori ez dek gauza zalla. Ara, orra. ¡Ta diruik gabe! ¡A! Erosi nazu guardasol au. Ederra da. Moda, modakua; azkenekua. Paristik etorriya.

MARC. ¡Ez du orrek ere abilidade guchi Paristik etorri bada. ¡Ekarri egingo zuten, ekarri!

GORG. Naizun bezela; bañan erosi nazu. Ara, euriya ari dubela guardasol au iriki ezkerro, eguzkiya azaltzen da.

MARC. ¿Eta ichi ezkerro?

GORG. Euriya.

MARC. ¡Alajaña! ¡Ez luke jendiak far guchi egingo ikusirik guardasol irikiyekiñ eguzkiya dagoala!

GORG. Orduban itzala ematen du. Tira merke, merke emango dizut.

MARC. ¿Ta zertako? Ez det guardasol biarrik. Berdiñ ez naiz echetik ateratzen ta...

GORG. Ni ere ez bada. ¿Nora joango naiz diruik gabe? Zur shamarra izan bear dezu zuk Mamerto. (*Dijua.*)

ZORTZI-GARREN IRUDIA

VIII

Marciano

¿Mamerto? ¡Ja, ja, ja, ja!

MUSIKA

Nik izan biar ditut
makiña bat izen
zergatikan Makario
ta Mamerto naizen,
Martín eta Mauricio
ditubela nasten,
bañan nererik ez du
beñere ikasten

BEDERATZI-GARREN IRUDIA

IX.

Marciano ta Joshé (*guardasolekiñ*)

- MARC. ¡Kasho Mutill! ¿emen alaiz?
JOSH. Bai Marciano, bai. Atzo estuasun guztiekiñ gaberdi arte
 lanian aitu ninukan, dena bukatu ta onera etortzia gatik.
- MARC. Ondo, ondo Joshé. ¿Eta echian?
JOSH. Guztiyak ondo gelditu dituk. Izeba, urashen badakik, beti
 bezela makal shamar...
- MARC. ¡Gajua! ¿Ta amona?
JOSH. Bere adiñian aritza baina gogorrago.
MARC. Beti ala izandu dek.
JOSH. Bada bede larogei ta bederatzi urterekiñ, taka, taka, taka, ez
 dik mesa nagusirik utz egiten.
- MARC. ¡Ikusten da!
JOSH. Ondo jan, ondo lo; bakarrik dubena da, pareta zar bat bañon
 gorrigo dagoala.
- MARC. Ez dek arritzekua adiñ ortan.
JOSH. Edozeiñ gauza esaten bada echian eta aurrian badago, bi
 bider esan biar dek ojuka ler egiñian, zergatik aitzen ez badu,
 bere keskarekiñ gelditzen dek ta...
- MARC. ¡Zer egingo da bada!
JOSH. Bai, ori utza dek. Gaitz aundiyagorik ez deiela etorri.
MARC. Ori, ori. Aita aiztiyan emen zan bada.
JOSH. Ikusi diat Lorencho-ren dendan eta itz bi egiñ dizkiagu. Beti
 bezela sendua dago.
- MARC. Bai Jaungoikoari eskerrak.
JOSH. Plazan berriz erruz dek jendia.
MARC. Bai, eguraldi ederrekiñ, baztar guztiyetatik biltzen dek feri
 egunian.
- JOSH. Ta i beti echian sartu ta lanian.
MARC. Bai feri eguna izan ezkerro, jakiña det neria; eta osasuna
 danian lan egitia ona dek.
- JOSH. Ori, ori.
MARC. ¿Zer artuko dek oraiñ?
JOSH. Nik ezerez. Gure legia egin da etorri gaituk.
MARC. Naidekan bezela bada.

GORG. (*Barrendik*) Makario, Makario.
 JOSH. ¿Nori deitzen diyo orrek?
 MARC. Neri.
 JOSH. Berrero batayatu alaute edo zer?
 MARC. Pronostikuban diran izen guztiyak jartzen zizkiak, eta nereik beñere eziñ somatu dik.
 JOSH. ¿Orren buru eskasa aldaka?
 MARC. Nik uste diat gisagaizoa erotu egingo dala.
 JOSH. ¿Erotu?
 MARC. Bai; boltsa diruba galdu dik, eta oso nastuba zebilek.
 JOSH. ¿Galdu?
 MARC. Galdu, Joshé, galdu. Eta ez nola naiko boltsa ere, ontzako urrez betia, zekazkiyenak bei bat erosteko asmuetan.
 JOSH. Gauza okerra dek ori orreatikan.
 MARC. ¡Añ okerra! Ik esagutuko dek, Grogonio jauna.
 JOSH. ¿Gorgonio? ¿Ichaso-legor-kua?
 MARC. Urashen bera.
 JOSH. Errukitzen nau. Asko esagutzen diat.
 MARC. Aitak diruba eskeñi diyo eta ainbeste alegiñ egiñ dizka arrazitzeko, bañan iñolako moduz ez dubela nai besten diruik esaten dik, lotsagarri arkitzia dala ori, eta echera kontu emanik, dirubaren sai ziok.
 JOSH. Bañan ¿nola gertatu zayo ori?
 MARC. ¡Ez dik bada guchi aldiz kontatzen! Zumarragan sartu omen dira burni-bidean, eta bildu omen da jende asko. Bulka batek, bulka bestiak, estuasun guztiyan jarri dirala beren lekubetan, eta gauza da Tolosan jaizterakuan, arkitu dala boltsik gabe.
 JOSH. ¡Gisagaizoa! Gizon zintzua da.
 MARC. Orra bada. Orain arkitzen dek diruik gabe ta beyik gabe. Lengo beya legorra gelditu omen dek eta...
 JOSH. Ichaso-legorren beya legortzia ez dek gauza arrigarriya izango.

AMAR-GARREN IRUDIA

X.

Lenguak eta Gorgonio

GORG. Mauricio... (*deika*)
 MARC. Marciano, nai badu.
 GORG. Marciano, bai; oraingoshian iya asmatu nuben.
 MARC. Iya ez da ordia lastua.
 GORG. Ala uste det nik ere.
 MARC. Usteak erdiya ustela du.
 JOSH. ¿Zer gabiltz Gorgonio jauna?
 GORG. ¡Kasho Joshé! ¿emen alaiz ire?
 JOSH. Bai jauna, bai; jiracho bat egitera. ¿Bedorri ere bai?

GORG. Bai, ni desegitera berriz. Obe izango zan beñere burutatu ez balitzairake orlako jirik eta mirik.

JOSH. ¡Orra beaz!

GORG. ¡Neri gertatu zaitanekiñ! Zumarragatik atera nak eta...

JOSH. Badakit jauna, bai.

GORG. ¿Badakikala? Emen guztiyak dakite eta iñork ez dit kontatzen usten...

MARC. Ez du bada atabaleruak deitu?

GORG. ¿Ta jendiak zer daki zeñi galdu zayon?

MARC. Edozeñek dubela uste aldu bedorrek aña diru?

GORG. ¿Nik aña diru? Orain bai beñepin. ¡Boltsa gashua!

JOSH. Sentitzen det.

GORG. ¿Nere boltsa? ¿Sentitzen dek nere boltsa?

JOSH. Bedorren okerra.

GORG. Ez nak ni okerra; bañan geiago sentitzen diat nik. Tira erosi nazak guardasol au. Beidakiyok zer ederra.

JOSH. Utzi beza gauza ori.

GORG. ¿Guardasola utzi? Orduban dena galdu ta esku utzik jungo nak Ichaso-legorra.

JOSH. Libriago jungo da.

MARC. Ta itzaso Legorra errezago pasako du. Guk Donostiyan itzaso buztiya esagutzen degu.

GORG. Ta nik gisaseme itza jariyuak.

JOSH. Jariyuentzat ez du guardasola iriki besterik.

GORG. Tira Joshé, merke, merke emango diat.

JOSH. Bañan ¿ez du ikusten badetala?

GORG. ¡Hum!

AMAICA-GARREN IRUDIA

XI.

Lenguak, Sebastian ta jendia

SEB. (*Sebastian sartzen da jendiari esaten:*) Bai, boltsa galdu ta iya erotu da gisagaizoa.

GORG. ¡A Sebastian! ¿Neretzako diruba etorri da?

SEB. Ez, ez.

GORG. ¿Boltsa arkitu da?

SEB. Ezta ere.

GORG. Ez, ez, ezta ere. Ara guardasola erosi nazu; Paris-tik orain ekarriya, moda-modakua. Beida zer ederra, berri berriya, zulorik gabe, ara. (*Irikitzen du ta boltsa erortzen zayo*). ¡Nere boltsa!!

JENDIA ¡A!

MUSIKA

GORG. Ona, bai, emen, ona,
nere boltsachua,
biotzaren erditik
maitatutakua.

Atoz bada, zan gauza
ikaratzekua
guardasola saldu ta
nekarren tratua (*Boltsari musuka*)

SEBASTIAN, MARCIANO eta JOSHÉ.

Orra, bai, nun dan orra,
bere boltsachua,
biotzaren erditik
maitatutakua.
Ja, ja, ja, jai, zan gauza
ikaratzekua
guardasola saldu ta
zekarren tratua.
Ja, ja, ja, jai, zan gauza
ikaratzekua
guardasola salduta
zekarren tratua.

LENGUAK ta JENDIAK

Orra, bai, nun dan orra,
bere boltsachua, etc.

GORG.

(*Izketan*) ¡Nere boltsa gaisoa! ¡Nere boltsa maitea! ¡Nork esan
bear ziran neri!

MUSIKA

Kantatu zagun bada guztiyak
arkiturikan pozturik,
afari on bat egingo degu
nere boltsaren kontutik.
(*Jendiari*) Beok afaldu nai badutere
ez dute bear besterik,
oraiñ etorri ostatu ontara
guri chalo bat emanik.

GUZTIYAK

Beok afaldu nai badutere
ez dute bear besterik,
oraiñ etorri ostatu ontara
guri chalo bat emanik.

Kantatu zagun bada
guztiyak pozturik
nere/bere bolcharen kontu
oraiñ afaldurik.
Beok nai badutere
ez da zer esanik,
betoz gure ostatura
chalo bat emanik.

BUKAERA.